

# Suteak eta bestelako arriskuak prebenitzeko



# Koaderno



Suteak prebenitzeko asterako argitalpen berezia, FUNDACIÓN MAPFREna eta APTBena  
Bosgarren argitaraldia: 2013ko iraila

**Egilea:** APTB (Asociación Profesional de Técnicos de Bomberos - *Suhiltzaile Teknikoen Elkarte Profesionala*)  
Javier Larrea Cuena aholkulari teknikoa  
Inés Ruiz Ribes aholkulari pedagogikoa

**Koordinatzailea**

FUNDACIÓN MAPFRE  
Jesús Vicente Hernández Hueros

**Irudiak, diseinu eta maketazioa**

APTB  
Natalia Rodríguez Calle

**Itzulpena**

Hori-hori, S.A.

© FUNDACIÓN MAPFRE, 2013

Legezko gordailua: BI-1199-2013

Argitaratzailea: FUNDACIÓN MAPFRE

Espanian inprimatua

DOAKO ALEA. EZ DAGO SALGAI.

Liburuxka honetako informazioaren erreprodukzio partziala baimenduta dago, haren jatorria aipatzen bada.

**SUTEAK ETA BESTELAKO ARRISKUAK PREBENITZEKO KOADERNOA SUTEAK PREBENITZEKO ASTE**arako sortutako hezkuntza materialaren zatia da; aste hori 2006tik elkarrekin antolatzen dute **FUNDACIÓN MAPFRE**k, Asociación Profesional de Técnicos de Bomberosek (**APT**B) eta Espainiako zenbait administraziotako suhiltzaile zerbitzuek.

**SUTEAK PREBENITZEKO ASTE**Aren helburua da herritarrei gai horri buruzko ezagupen orokorrak ematea, beren burua babes dezaten. Nahi dugu pertsona guztiek beren inguruan sute arriskua ezagutzen ikastea: etxebizitzetan, lantokietan, dendetan eta aisialdi tokietan.

**SUTEAK ETA BESTELAKO ARRISKUAK PREBENITZEKO KOADERNO**Aren bidez, ikasleek eguneroko bizitzan aurki ditzaketen arriskuak ezagutuko dituzte eta horiek prebenitzen ikasiko dute. Ikasiko dute nola saihestu behar diren suteak, zeintzuk diren objekturik arriskutsuenak, zer egin behar den sutea dagoenean, zein den larrialdietarako telefonoa, zeintzuk diren babesteko ekipo eta tresna nagusiak (itzalgailuak, ur hartuneak...) eta abar.

Argibide gehiago nahi izanez gero, 91 602 52 21 telefonoan kontsultak egin daitezke edo webgune hauek ikus daitezke:

[www.fundacionmapfre.org](http://www.fundacionmapfre.org)

[www.aptb.org](http://www.aptb.org)

[www.semanadelaprevencion.com](http://www.semanadelaprevencion.com)

**Fundación  
MAPFRE**



# Nire prebentzio koaderno

Kaixo, Extin dut izena eta su itzalgailu bat naiz; Laura eta Diego nire lagunak dira.

Hirurok lagunduko dizuegu prebentzio koaderno honetan eginen duzuen ibilaldian.

Gauza asko ditugu prestaturik zuentzat. Adibidez, jolastuko zarete etxean, kalean eta eskolan dauden arriskuak asmatzera.



Ekidin beharreko objektu arriskutsuak ezagutuko dituzue.




Era berean, gauza garrantzitsuak irakatsiko dizkizuegu, esate baterako zer egin etxean surik egonez gero eta zein telefonotara deitu larrialdirik sortuz gero.



Koaderno honen amaieran jokoaren erantzunak aurkituko dituzu.

**ONGI PASATU ETA ASKO IKASI!**



# Suaren hirukia

Sua egon dadin, hiru elementu azaldu behar dira batera:

- Lehenik, erre daitekeen zerbait behar da eta; horri **ERREGAI** iritziko diogu. Adibidez, papera, su bateko egurra edo urtebetetze jai bateko kandela baten argizaria.
- Horren ondoren, **BEROA** behar da edo hori sorraraz dezakeen zerbait, esate baterako pospolo bat edo pizgailu bat.
- Azkenik, **OXIGENOA** behar. Oxigenoa inguratzen gaituen eta arnasten dugun airean dago. Oxigenorik izanen ez bagenu, itoko ginatke. Baina, badakizue suak ere oxigenoa behar duela? Guri gertatzen zaigun bezala, oxigenorik ez badauka, ito egiten da.



Hiru elementu horiek dira **SUAREN HIRUKIA** osatzen dutenak.



Hori dela eta, 3 elementu behar badira sua egon dadin, nola itzaltzen da sute bat? Hiru elementu horietariko bat kendu behar da eta sua itzaliko da.

Adibidez, suhiltzaileek suteei ura botatzen dietenean, sua hozten dute, hau da, beroa kentzen diote.

Kandela bat kontsumitzen denean itzaltzen da erretzeko moduko argizari gehiago geratzen ez delako, hots, erregairik ez duelako.



Gogoratu batuketa hau



ERREGAIA

+



BEROA

+



OXIGENOA

=



SUA

# Zer egin etxean surik egonez gero?

Honako hauxe da egin beharreko gauzen zerrenda, surik egonez gero. Baina desordenaturik daude! **Ordenatu behar dituzue eta erantzunen taulan hurrenkera zuzena jarri.**



1 Jaitsi eskaileretatik, ez erabili sekula igogailua.



2 Irtendakoan itxi etxeko ateak, sua gehiago zabal ez dadin.



3 Sua handitu eta ezin bada itzali, irten etxetik guztiei abisua emanaz.



4 Geratu etxetik kanpo eta ez itzuli sua guztiz iraungita egon arte.



5 Deitu suhiltzaile zerbitzura (112).



6 Surik ikusiz gero, abisatu pertsona heldu bat, hark itzal dezan.



## Erantzunak

- Lehenengoa:
- Bigarrena:
- Hirugarrena:
- Laugarrena:
- Bosgarrena:
- Seigarrena:

# Zenbait objektu arriskutsu


Gauza hauek guztiak etxean aurki ditzakezue. Horietariko batzuk arriskutsuak izan daitezke.

Margotu sua sorrarazten dezaketen objektuak.



Oroitu! Sugar guztiek sua eragin dezakete!

# Babestu zeuen burua suteen kontra





## Su itzalgailua

- Su itzalgailu batez etxeko suteak iraungi daitezke txikiak direnean.
- Su itzalgailuak ikusgai eta eskuragarri egon behar du, hartzeko erraza den toki batean.
- Eraginkorra izan dadin, jakin behar da nola erabiltzen den; horregatik, **helduek baino ezin dituzte erabili.**

## Sua itzaltzeko burusia

- Likidoetako suak itzaltzeko balio du, esate baterako zartagineko olioarena.
- Sua itzaltzeko burusiak sukaldean egon behar du, ikusgai eta eskuragarri.
- Sua itzaltzeko burusia erabiltzea arriskutsua izan daiteke; hori dela eta, **heldu batek baino ezin du erabili.**



## Su detektagailua

- Su itzalgailua detektatzeko erabiltzen da; alarma gogor batek jotzen du eta horrek abisua ematen dizue ihes egin ahal izateko.
- Gaua bada, alarmak esnatu ahalko zaitu. Horregatik, sistema hau onena da lo egin bitartean suteetatik bizirik ateratzeko.

Oroitu: ez saiatu sekula sua itzaltzen, nahiz eta txikia izan; deitu pertsona helduei.



# Etxeko, ikastetxeko eta kaleko arriskuak

Garaia da batzuetan hurbil ditugun baina ikusten ez ditugun arriskuen berri izan dezazuen. Arrisku horiek ezagutzuz gero, saihestu ahalko dituzu eta zuen etxea eta ikastetxea leku seguruagoak izatea lortuko duzue.

Ikasteko, lehenik eta behin Lauraren **etxera** joanen gara; ziur asko etxe hori zuenaren antzekoa da. Horren ondoren, Diegoren **eskolara** hurbildu, jarraian **merkataritza zentro** batera bertaratu eta, azkenik, igogailu batean sartuko gara, hori bai betiere heldu batek lagunduta.

Toki horietan lehenik aholku batzuk emanen dizkizuet eta horiek arretaz jarraitu, geroago Laurari eta Diegori jakinarazteko zein aholku ez den betetzen ari.

Eta Laurak etxea erakusteko ezinegona duenez, onena da orrialdea pasatzea eta jolasten hastea.

## ONGI PASATU ETA ASKO IKASI!



# Logelako arriskuak

Lotu aholku bakoitza bere marrazkiarekin, geziak erabiliz.

## Oroitu

- Ez sartu atzamarrak entxufeetan •
- Ez estali inoiz lanpara arroparekin •
- Itzali argiak oheratutakoan •
- Ez utzi ezer berogailuen gainean •
- Ez utzi piztuta ordenagailua •



Inguratu biribil gorri batez gela honetako 3 arriskuak.



# Egongelako arriskuak

Lotu aholku bakoitza bere marrazkiarekin, geziak erabiliz.

## Oroitu

- Itzali telebista ikusten bukatu ondoren •
- Ez gainkargatu entxufeak •
- Ez jolastu pospoloekin, pizgailuekin edo sua eragin dezaketen bestelako objektuekin •
- Ez jolastu ez kableekin, ez tresna elektrikoekin •



Inguratu biribil gorri batez bete beharreko 3 aholku.



# Bainugelako arriskuak

Lotu aholku bakoitza bere marrazkiarekin, geziak erabiliz.

## Oroitu

- Ez itxi atea krisketaz •
- Ez ibili oinutsik •
- Ez hartu sendagairik botika kutxatik •
- Ez ukitu etengailuak bustirik bazaudete •
- Ez erabili tresna elektrikorik uretatik hurbil: irratia, lehorgailua... •



Inguratu biribil gorri batez bainugelako 4 arriskuak.



# Sukaldeko arriskuak

Lotu aholku bakoitza bere marrazkiarekin, geziak erabiliz.

## Oroitu

- Ez ukitu sua, ez kazolak ez zartaginak, ez edozein elementu bero •
- Ez jolastu garbiketa produktuekin •
- Arropa pizten bazaizue, estali manta batez edo bota lurrera eta hasi birak ematen •
- Ez jolastu sukaldeko aginteeekin, ez eta labearekin eta gasaren giltzarekin ere •
- Ez hartu labainik, ez eta objektu zorrotzik ere •



Inguratu biribil gorri batez sukaldeko 4 arriskuak.



# Ikastetxeko arriskuak

Lotu aholku bakoitza bere marrazkiarekin, geziak erabiliz.

## Oroitu

- Ez ibili lasterka ez korridoretan ez eskaileretan •
- Ez jolastu itzalgailuekin ez mahukekin •
- Kontuz ibili artaziekin, grapagailuekin... •
- Surik izanez gero, jo irteerarantz irakasleen jarraibideei kasu eginez •



Adierazi biribil gorri batez betetzen ez diren 2 aholkuak.



# Merkataritza zentroko arriskuak

Lotu aholku bakoitza bere marrazkiarekin, geziak erabiliz.

## Oroitu

- Egin kasu segurtasun zaintzaileari •
- Jarraitu merkataritza zentroko arauak •
- Ez urrundu inoiz zuekin doan pertsona helduarengandik •
- Ez jolastu sekula arrisku seinalea ikusten duzuen tokietan •



Inguratu biribil gorri batez marrazki honetako arriskua.



# Igogailuko arriskuak

Lotu aholku bakoitza bere marrazkiarekin, geziak erabiliz.

## Oroitu

- Ez sartu heldu baten laguntzarik gabe •
- Gogoratu helduei igogailuan ezin dela erre •
- Surik egonez gero, ez erabili igogailua •
- Ez egin saltorik igogailu barnean eta ez jolastu botoiekin •
- Arazorik izanez gero, sakatu alarma botoia •



Inguratu biribil gorri batez igogailu honetako 2 arriskuak.





# Larrialdietarako telefonoa

Elkartu puntuak eta ikusiko duzue zein den larrialdietan (istripuak, suteak, uholdeak...) erabili beharreko telefonoa.

Koloreztatu ahantz ez dakizuen.



# Zer dakizue suteei buruz?

Erantzun galdera hauei eta ikusiko duzue zenbat dakizuen suteei buruz.

Inguratu biribil batez zuzena iruditzen zaizun erantzuna.

- 1** Sute batetik ihes egitean honakoa egin behar:  
**A.** Ihes egin behar da eskailerak igoz.  
**B.** Igogailuan sartu behar da.  
**C.** Irten behar da eta eskailerak jaitsi.
- 2** Zein da larrialdietarako telefonoa Europar Batasun osoan?  
**A.** 112.  
**B.** 221.  
**C.** 121.
- 3** Suak arropa hartzen badizue, zer egin behar da?  
**A.** Lasterka irten.  
**B.** Ura bota ginetik.  
**C.** Burusi batez estali edo lurrera bota eta birak ematen hasi.
- 4** Surik egonez gero, komeni al da atearak zabalik uztea?  
**A.** Bai, aire korronteak sua itzaliko du eta.  
**B.** Bai, jendea azkarrago irten ahalko da.  
**C.** Ez, atearak itxi behar dira.
- 5** Sukaldean usainagatik gas ihesaldi bat detektatzen denean...  
**A.** argia itzali eta lasterka irten behar da.  
**B.** gas giltza azkar batean itxi behar da.  
**C.** lehenengoa da teknikariari jakinaraztea.
- 6** Suak itzaltzeko burusia erabilgarriagoa da...  
**A.** bainugelak.  
**B.** sukaldean.  
**C.** terrazan.
- 7** Zertarako balio du itzalgailuak?  
**A.** Su txikiak itzaltzeko.  
**B.** Alarma batez jakinarazten digu sua dagoela.  
**C.** Harekin jolasteko.





- 8** Lo bazaude eta sua pizten bada, keak esnatuko zaitu.
- A.** Egia.
  - B.** Gezurra, ez zaitu esnatuko. Keak eta gasek hilko zaituzte.
  - C.** Lozorroan bazaude baino ez.
- 9** Surik izan eta gu lo egonez gero, zein da esnatzen gaituen tresna?
- A.** Suteak itzaltzeko burusia.
  - B.** Su detektagailua.
  - C.** Su itzalgailua.

- 10** Hurrengo ekintzen artean, zein da sua eragin dezakeena?
- A.** Telebista itzaltzea lotara noanean.
  - B.** Kamiseta bat jartzea piztutako lanpara baten gainean.
  - C.** Ordenagailua itzaltzea une horretan ez banaiz erabiltzen ari.

Egiaztatu zenbat asmatu dituzuen 23. orrialdeko soluzioak ikusiz.

Galdera bakoitzak puntu 1 balio du; beraz, orain batu asmatu dituzuenak eta idatzi puntuazioa zeuen laukitxoan.



### Puntuazioa

Suteei buruzko test honetan honako puntuazioa atera dut


.....

Asmatutakoak.

# Jaiegunak, egun arriskutsuak

Jaietan ere arriskuak izaten dira. Kontuz ibili tarteetako kandlekin, suteekin, petardoekin, Gabonetako argiekin...

Koloreztatu marrazki hauek eta adierazi biribil batez arriskutsuak izan daitezkeen objektuak.





# Suhiltzaileen materiala

Aurkitu letra zopan suhiltzaileek erabili ohi dituzten objektuak. **Koloreztatu!**



R	T	W	A	P	A	R	R	A
N	X	A	U	J	O	A	Z	U
T	U	I	L	M	K	E	S	M
Z	G	O	I	X	S	Z	O	A
O	E	I	A	E	A	N	A	H
B	I	M	G	Z	K	J	X	U
U	X	A	L	M	U	G	U	K
E	S	K	A	I	L	E	R	A
U	A	S	Z	E	T	O	A	Z
T	B	O	T	A	K	E	B	O
E	R	A	I	M	J	Z	E	X





# Gogoratu aholku hauek

Prebentzioaren munduan egindako ibilbidea bukatzeko, sekula ahantzi behar ez dituzuen gauzarik garrantzitsuenei buruzko laburpen bat egingen dugu.

Ez jolastu suarekin.

Etxean surik egonez gero:

- Irten kalera berehalakoan.
- Kerik egonez gero, ibili katamarka.
- Arropa piztuz gero, gelditu, bota lurrera eta hasi birak ematen.
- Ez ezkutatu eta ez galdu denborarik zeure gauzak bilatuz edo jasoz.
- Deitu 112 telefonora. Geratu eraikinetik kanpo.

Ez saiatu sekula su bat itzaltzen, txikia izan arren.

Ez sartu inoiz igogailu batean bakarrik.

Erabiltzen ari ez bazarete, iraungi argiak, ordenagailua eta telebista.

Urrundu gauza arriskutsuetatik, adibidez:

- Pospolo eta pizgailuetatik. Heldu bati esan gauza horiek aurkituz gero.
- Objektu beroetatik: lisaburdina, berogailua, zartaginak eta kazolak.
- Garbiketa produktuetatik.
- Mozten duten objektuetatik: labainak, artaziak...
- Entxufe eta kable elektrikoetatik.

Bainugelan tresna elektrikoak uretatik urruti izan behar dituzue.

Kalera irteten zaretenean, ez urrundu zuekin batera doan helduarengandik eta errespetatu segurtasun seinaleak.

Espero dugu gurekin gozatu izana eta, batik bat, suteak eta bestelako arriskuak prebenitzen ikasi izana.

**Eta maiz helduak halako gauzekin oroitzen ez direnez gero, zuei dagokizue gurasoei ikasitakoaren berri ematea.**


# Soluzioak

Zer egin etxean surik egonez gero? (6. orrialdea).

## Erantzunak

- Lehenengoa: 6.
- Bigarrena: 3.
- Hirugarrena: 2.
- Laugarrena: 1.
- Bosgarrena: 5.
- Seigarrena: 4.

Zenbait objektu arriskutsu (7. orrialdea).



Zer dakizue suteei buruz? (18-19. orrialdeak).

## Erantzunak

- 1: C.
- 2: A.
- 3: C.
- 4: C.
- 5: B.
- 6: B.
- 7: A.
- 8: B.
- 9: B.
- 10: B.

Suhiltzaileen materiala (21. orrialdea).

R	T	W	A	P	A	R	R	A
N	X	A	U	J	O	A	Z	U
T	U	I	L	M	K	E	S	M
Z	G	O	I	X	S	Z	O	A
O	E	I	A	E	A	N	A	H
B	I	M	G	Z	K	J	X	U
U	X	A	L	M	U	G	U	K
E	S	K	A	I	L	E	R	A
U	A	S	Z	E	T	O	A	Z
T	B	O	T	A	K	E	B	O
E	R	A	I	M	J	Z	E	X

Arriskuak (9-16. orrialdeak).



### Zuen logelan

- Ez sartu atzamarrak entxufeetan
- Ez estali inoiz lanpara arroparekin
- Itzali argiak oheratutakoan
- Ez utzi ezer berogailuen gainean
- Ez utzi piztuta ordenagailua



### Egongelan

- Itzali telebista ikusten bukatu ondoren
- Ez gainkargatu entxufeak
- Ez jolastu pospoloekin, pizgailuekin edo sua eragin dezaketen bestelako objektuekin
- Ez jolastu ez kableekin, ez tresna elektrikoekin



### Bainugelan

- Ez itxi atea krisketaz
- Ez ibili oinutsik
- Ez hartu sendagairik botika kutxatik
- Ez ukitu etengailuak bustirik bazaudete
- Ez erabili tresna elektrikorik uretatik hurbil: irratia, lehorgailua...




### Sukaldean

- Ez ukitu sua, ez kazolak ez zarteginak, ez edozein elementu bero
- Ez jolastu garbiketara produktuekin
- Arropa pizten bazaizue, estali manta batez edo bota lurrera eta hasi birak ematen
- Ez jolastu sukaldeko aginteeekin, ez eta labarekin eta gasaren giltzarekin ere
- Ez hartu labainik, ez eta objektu zorrotzik ere



### Ikastetxean

- Ez ibili lasterka ez korridoreetan ez eskaileretan
- Ez jolastu itzalgailuekin ez mahukekin
- Kontuz ibili artaziekin, grapagailuekin...
- Surik izanez gero, jo irteerantz irakasleen jarraibideei kasu eginez



### Merkataritza zentroan

- Egin kasu segurtasun zaintzaileari
- Jarraitu merkataritza zentroko arauak
- Ez urrundu inoiz zuekin doan pertsona helduarengandik
- Ez jolastu sekula arrisku seinalea ikusten duzuen tokietan



### Igogailuan

- Ez sartu heldu baten laguntzarik gabe
- Gogoratu helduei igogailuan ezin dela erre
- Surik egonez gero, ez erabili igogailua
- Ez egin saltorik igogailu barnean eta ez jolastu botoiekin
- Arazorik izanez gero, sakatu alarma botoia



**SUTEAK ETA BESTELAKO ARRISKUAK PREBENITZEKO KOADERNOA** material didaktikoa da; ikasleei laguntza emanen die eguneroko bizitzan aurki ditzaketen arriskuak ezagut ditzaten eta horiek saihesteko jarraibideen berri izan dezaten.

Informazio edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu 91 602 52 21 telefonora edo ikusi hurrengo helbideak:

[www.semanadelaprevencion.com](http://www.semanadelaprevencion.com)



**FUNDACIÓN MAPFRE**

Paseo de Recoletos, 23  
28004 Madrid - España

[www.fundacionmapfre.org](http://www.fundacionmapfre.org)